



### iii.7. Aspektu markaren bikoizketa: *izandu da, egondu da, itzundu da* (v *izan da, egon da, itzun da*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Aspektu markaren bikoizketa: *izandu da, egondu da, itzundu da* (v *izan da, egon da, itzun da*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=23&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

## Gako-hitzak

aspektua, bikoizketa, nominalizazioa, partizipioa

## Deskribapena

Euskaraz, testuinguru burutuetao partizipioa osatzeko *-n*, *-tu* (edo *-du*), *-i* edo *-ø* atzizkiak erabiltzen dira. Horrela, *izan*, *apurtu*, *etorri* eta *bete* bezalako partizipioak osatzen dira.

(1)	Ez	dut	arazorik	izan
	ez	(3ABS).edun.1SG.ERG	arazo.PRTV	izan.PTCP

Hizkera batzuetan, partizipio batzuk osatzeko, *-tu* eransten zaio aurreko partizipio markari eta horrela, bi marka desberdin erabiltzen dira. Halakoak, batez ere, *-n* amaierako partizipioetan gertatzen dira: *-n* + *tu* > *-ndu*. Ondorioz, *izandu*, *egondu* eta *etzandu* bezalako partizipioak sortzen dira (2). Bestetik,

zero partizipio marka (-ø) dutenekin ere gerta liteke, esate baterako, *betetu* edo *bizitu* bezalakoetan.

(2)	Ez	dut	arazorik	izandu
	ez	(3ABS).edun.1SG.ERG	arazo.PRTV	izan.PTCP

## Banaketa dialektala

Guk dakigula, bikoizketa honen berri ez da dialektologia lanetan jaso. Haddican eta Tsoulasen arabera, ezaugarri hau erdialdeko euskalki batzuetan dago, esate baterako Oiartzunen.

## Datu-basearen emaitzak

Datubaseko emaitzei erreparatuta, ikus daiteke ezaugarrien hedadura handiagoa dela eta mendebaletik ekialderaino zabaldua dagoela. Mendebaleko euskalkietan, baiezko erantzuna jaso da Getxon, Loiun, Mungian eta Gernikan, hau da, ipar-sartaldean eta tarteko azpieuskalkiaren iparraldean. Erdialdeko erdiguneko azpieuskalkian, Hernanin, Erreterian, Irunen, eta sortaldeko azpieuskalkian, Irunen eta Imotzen jaso da haren berri. Euskara nafarrean hainbat puntutan aurkitu da, zehazki, Arbizun, Goizuetan, Erroibarren eta ekialdean Orbaitzetan. Azkenik, euskara nafar-lapurtarrean, Ziburun eta Oragarren jaso da baiezko erantzuna, baina ez euskara zuberotarra duen Urdiñarben.

## Eztabaida teorikoa

Ikuspuntu sintaktikotik, partizipio markaren bikoizketa modu batera baino gehiagora interpreta daiteke. Haddican eta Tsoulasen (2012) arabera, adibidez, horrelako partizipioetan garbi ikusten da “partizipiozkotzat” ditugun atzizkiak, izatez, funtzio bat baino gehiago izan ditzaketela. Izan ere, Goenagak (1985) eta Artiagoitiak (1995) erakutsi duten bezala, *-n*, *-tu*, *-i* edo *-ø* amaierako aditzezko formak interpretazio burutua edo perfektiboa ez duten hainbat testuingurutan ager daitezke, besteak beste, geroaldiko adiera duten testuinguruetan (3a), testuinguru ez-jokatueta (3b), aginteran (3c) edota postposizioen osagarrietan (3d) (Haddican eta Tsoulas 2012)

(3a)	izango	da		
	izan.PROS	(3ABS).izan		
(3b)	izan	behar	du	
	izan.PTCP	behar	(3ABS).edun.(3ERG)	
(3c)	egon	lasai		
	egon.PTCP	lasai		
(3d)	nahiz	gaztea	izan	

nahiz      gaztea      izan.PTCP

Kasu horietan guztietan, ez da atzizkiaren bikoizketarik gertatzen, ezta hala egiten duten aldaeretan ere (Haddican eta Tsoulas 2012).

(4a)	*izanduko izan.PROS	da (3ABS).izan
(4b)	*izandu izan.PTCP	behar    du behar    (3ABS).edun.(3ERG)
(4c)	*egondu egon.PTCP	lasai lasai
(4d)	*nahiz nahiz	gaztea    izandu gaztea    izan.PTCP

(2) eta (4)ren arteko kontrastea azaltzeko, Haddican eta Tsoulasek proposatu dute *-n*, *-tu*, *-i* edo  $\emptyset$  atzizkiek funtzio bikoitza izaten dutela: bata, infinitibo gaiztatzea, eta bestea, aspektu burutua (edo perfektiboa) gaineratzea. (1) eta (2) bezalako testuinguru burutueta, funtzio biak betetzen dira; eta (3) eta (4) bezalakoetan, ordea, bat bakarrik, infinitiboarena, hain zuzen. Hortaz, egile horien arabera, bikoizketa gertatzen da (2) bezalako adibideetan funtzioak banatu egiten direlako: *-n* atzizkiak infinitiboa gaineratzen du eta *-tu* (>*-du*) atzizkiak, aldiz, aspektu burutua. (3)ko eta (4)ko adibideetan, funtzio bakarra gauzatu beharra dagoenez, ordea, ez da bikoizketarik gertatzen eta atzizki bakarra azaleratzen da.

## Aipamenak

Artiagoitia, Xabier. 1995. «Verbal projections in Basque and minimal structure» *ASJU*, XXVIII-2: 339-504.

Goenaga, Patxi. 1985. «Complementación y nominalización en Euskara» *ASJU* 19: 493-570.

Haddican, Bill and George Tsoulas. 2012. «A continuum of deficiency for Basque infinitives». In Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare and Myriam Uribe-Etxebarria (eds.), *Noun phrases and nominalizations in Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 437-460.